



BUBBLE

AMAIA BENGOETXEA, IRADI LERSUNDI, AROA GRAÑA ETA AMETS ITURRIZA



BUBBLE

FUNTSEZKO ALIANTZA

- Evax, Durex, Platanomelón... (gure gaiarekin antzekotasunak duten markak)
- Cure gaian murgilduta dauden adituak (Sexologoak, Psikologoak).
- Erakunde publikoak

FUNTSEZKO JARDUERA

- Webgune bat diseinatu eta hau eguneratu
- Marketin plana
- Finantza-kudeaketaren jarraipena
- Informazioa zabaldu
- Hitzaldiak eskaini

BALIO PROPOSAMENA

Zerbitzu honi esker, gazteek sexualitatearen inguruko informazioa lortu dezakete beraien sexualitatea lasai, seguru eta aske bizi ahal izateko.

BEZEROEKIKO HARREMANA

Gazteentzako informazio gune bat denez, publizitatea sare sozialen bitartez egingo da, hauek denbora asko igarotzen baitute bertan.

BEZEROEN SEGMENTUA

Gai sexualetan interesa duten gazteentzat izango da. Gehienetan, gazteek ez dute gai honen inguruan informazio askorik izaten. Horregatik, gure webgunean eskaintza hau egingo dugu.

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- Baliabide ekonomikoak: Erakunde publikoak
- Baliabide fisikoak: Ordenagailuak, Hardware-a...
- Baliabide ukiezina: Interneta, Wifi-a eta Software-a.
- Baliabide pertsonalak: marketing eta webgunearekin arduratzen diren pertsonak, gaian adituak diren profesionalak...



KANALAK

Cure enpresak zerbitzu online bat eskaintzen duenez, kanal propioa eta zuzena du.

KOSTUEN EGITURA

Weborria egiteaz arduratuko direnak, psikologoak, sexologoak... izango dira beste profesional askoren artean ordainduak izango direnak.

DIRU-ITURRIA

Iragarkiak eta kolaborazioak izango dira enpresa honen diru-iturri nagusia. Bestalde, Freemium-Premium zerbitzuaren bidez dirua ere irabaziko da, bezeroak ordaintzearen truke zerbitzu aurreratuagoak jasoko baitituzte.



IDEIAREN DESKRIBAPENA

“Bubble”, webgune eta aplikazio bat da. Gaur egungo gazte arazoei erantzun profesional zein beste hainbat gazteen hausnarketak biltzeko leku seguru bat bezala definitu ahal dena. Sexua eta sexualitateari buruzko informazioa helaraztea da ideiarene oinarria.

Teknologia berrien garapenarekin pornografia nagusitu da gazteen artean. Nerabeen 10-etik 7-k pornografia kontsumitzen dute, eta hau da beraien heziketa bakarra. Arazo honen aurrean “Bubble”-ek, gazteen galdera guztiei erantzunak eskainiko dizkie.

Sexu seguru eta inklusibo bat lortzeko, webgunean nahiz aplikazioan genero guztien arteko sexuen inguruan informazio ezberdina eskaintzen du. Alde batetik, sexuaren inguruko aholkuak eta baita erabiltzaileek beraien esperientzia eta gomendioak eskaintzen dituzte. Horrela, eskaintzaren egilearen eta hartzailearen egoeren artean ahalik eta antzekotasun gehien izatea ahalbidetzen du. Bestetik, sexualitatearen esparruaren barruan sexu segurua oso garrantzitsua denez, antisorgailuen erabilpena ere bultzatzen du; infekzio, gaixotasun nahiz haurdunaldiak eragozten dituzten produktu desberdinen katalogoa eskainiz.



“Bubble”-en, gazteen artean osasun sexuala izateko, Premium-a ordaintzen duten erabiltzaileek kurtso pertsonalizatua bat izango dute eskuragarri. Ikastaro honen helburua pertsonak sexu-osasuneko agente gisa prestatzea da, inguruan informazio-gabeziak identifikatzeko eta laguntza emateko; hau da, sexualitateari buruzko tresnak eta ezagutzak ikuspegi anitz batetik eskaintzea du helburu eta aurreiritziak eta tabuak ezabatzea eta eztabaidatzea ahalbidetzen du. Gune honek, familiak beraien seme-alaba nerabeekin sexu-osasuna eta tratu oneko harremanak lantzeko informazioa eskaintzen du.

“Bubble” gainerako zerbitzuetatik bereizten duena, sexu-osasuneko zerbitzuak eta GIB (giza immunoeskasiaren birusa)-ren eta beste STI (Sexu-transmisiozko infekzioak) batzuen proba azkarrak dira; guztiz doakoak eta konfidentzialak. Erabiltzaileek test bizkorrek etxetik mugitu barik egin dezakete, arriskuak murrizteko plan bat ezartzeko eta prebentzio-materiala emateko aholkuak eta laguntza emateko, baita beste osasun- edo gizarte-baliabide batzuetara bideratzeko ere (autolaguntza-taldeak, ospitaleko GIB unitateak, etab.). Baieztapen diagnostikoa behar izanez gero, dagokion osasun-zentroan egingo da, hark zehazten dituen baldintzen arabera.



BALIO PROPOSAMENA

Webgune honek, dagokion aplikazioarekin batera, hainbat arlotan mesede egin diezaieke erabiltzaileei. Gizarte honetan ezinbestekoa da sexualitatea ezagutzea, gizakiak beste pertsona batzuekin sozialki, afektiboki eta sexualki lotzeko duen beharrari erantzuten baitio. Sexualitate osasungarria eta arduraz garatua izateak zorientasun-egoera eta ongizate fisikoa, emozionala, soziala eta mentala sortzen du. Beraz, **sexu-esperientzia seguruak** eta **horiei buruzko informazioa** izateak onura handiak dakarzkie edozein pertsonari.



Sexualitateak pertsonen **nortasuna erabat garatzen** laguntzen du, eta haien zorientasun pertsonalean ere eragina izan ahal du. Tabua izaten jarraitzen du, baina webgune honek, pertsonari (bereziki haurrei eta gazteei) informazio egokia eskuratzeko aukera handiagoa emango die.

"Bubble"-k gazteen **autoestimaren garapena sendotzen** lagun dezake, beraien arazo berak dituzten beste pertsona batzuk existitzen direla jakinda. Ildo horri jarraituz, horrek mesede handia egin diezaioke egungo gazteen osasun mentalari.

Bestalde, sexu-hezkuntza izateak sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko **diskriminazioa arintzen** ere laguntzen du. Harreman afektibo edo sexual desberdinak daudela erakusteko eta ikusarazteko, hauek normalizatzen eta haien aurrean tolerantetagoa izaten laguntzen du. Horrela, webgune honek egungo gizartean dagoen aniztasuna ulertzen eta onartzen laguntzeko gaitasuna dauka.

Sexu bidez transmititutako gaixotasunak prebenitzeko baliabideak eskaintzea ere balio-proposamen handia izan daiteke. Oso garrantzitsua da gazteak kontzientziaztea harreman sexual ez-seguruak ekar ditzakeen arriskuez. "Bubble"-k gaiari buruzko doako informazioa eskainiko die, sexu-erantzukizun arduraduneko kultura sustatuz.


Azkenik, aurreko puntuaren hariari jarraiki, aplikazio honek **nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzen** ere lagunduko du. Era guztietako antisorgailuei buruzko informazioa emanaz eta haratago irits daitezkeen arazoak saihestuz.



KANALA

“Bubble”-ek **kanal propioa** eta **zuzena** du. Propioa, ekintzaile gisa sortua den webgunea delako da, norberak sortutako zerbitzua eskainiz. Modu honetako kanala ezartzea eta kudeatzea konplexuagoa eta garestiagoa da, baina negozioari etekin handiagoak sortzen dizkio. “Bubble” beste negozio baten plataforma bateko atal bat izango balitz, beraiek kudeatuko lukete, baina etekina txikiagoa izango litzateke.

Bestalde, zuzena, eskaintzaileak bezeroari zerbitzua zuzenean ematen diolako da, inolako bitartekaririk gabe. Hori horrela, kanalaren kontrol guztia bermatzen da.





BEZEROEN SEGMENTUA

“Bubble”-en kasuan, webgune hau, gai sexualetan interesa duten **gazteei** zuzenduta egongo da, beraien sexu-osasunak hobetu beharreko alderdi asko baititu. Arazo ohikoena desinformazio sexuala eta alderdi horretan heziketarik ez izatea da. Nahi ala ez, gazteak sexuaren munduan sartuko dira, eta inork ez badie azaltzen harreman sexoafektibo osasuntsuak nolakoak diren, haien ikaskuntzak iturri bakar batetik etorriko dira: pornografiatik. Hori horrela, webgune honetan aurkitu ahal izango dute haiei falta zaien infomazio hori.

Bestalde, webgune edo aplikazio hau erabili ahal izateko, erabiltzaileak gailu elektronikoko bat eta Interneta izan beharko dute; online eskeintzen baitira zerbitzu hauek.





DIRU ITURRIAK

“Bubble”-en kasuan, diru-sarrerak **Premium-Fremium** negozio-ereduaren arabera dira; eredu hau doako zerbitzu baten sorreran eta eskuragarritasunean oinarritzen da. Hala ere, erabiltzaileak bere kontsumo-egunean aurrera egiten duen heinean edo horrek eskaria behar bezala asetzen ez duenean, enpresak aparteko funtzionalitateak edo ezaugarri aurreratuagoak dituen ordaindutako aukera bat eskaintzen du.

Negozio-eredu honen helburu nagusia, pixkanaka, epe luzera bezeroak irabazteko aukera ordainduta izatearen onurak erakustea da, hau da, interesa duen edonork erabil dezake zerbitzua zentimo bakar bat ere gastatu gabe; hala ere, ordaindutako plan bat kontratatzen dutenek bakarrik izango lukete harremanaren xedearen funtzionalitate aurreratuenetarako sarbide osoa. Kasu horretan, oinarritzko informazioa eta zalantza komun batzuei emandako erantzunak ikusgai izango dira erabiltzaile guztientzat, baina aparteko informazio hori ordaintzen dutenei ikastaro bat eskainiko zaie, informazio gehiagorekin eta bakoitzaren sexu-osasunaren azterketa individual batekin.



Freemium ereduaren barruan, ez ordaintzea erabakitzen duen erabiltzaileak zerbitzua gozaten jarraitzen du harremana amaitzeko eperik gabe edo zerbitzua eskaini duen enpresarekin (“Bubble-ekin”) arazorik sortu gabe.

Bestalde, webgune honek diru-sarrerak ere sortzen ditu honekin lotutako hainbat **marka publizitatuz**; esate baterako, Durex, Satisfyer edo Evax. Hauek mota guztietako produktuak jartzen dituzte bezeroen eskura, hala nola, gel lubrifikatzaileak eta preserbatiboak (kondoiak), masajetzaile pertsonalak eta higiene intimoko produktuak.

Diru laguntzak ere jasoko ditu gobernuaren partetik, negozio hau txikia eta kultura sustatzailea baita.



FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduera enpresa bat matruxan jartzeko beharrezkoak diren baliabideen multzoa da.

Alde batetik, Bubble-en kasuan, **ekoizpenaren baliabidea** ezinbestekoa da; izan ere, webgunea eta aplikazioa uneoro egunereatua izatea ezinbestekoa baita bezeroentzako.

Bestalde, **marketinari eta salmentari** dagokioenez, enpresa txiki hau ezagutarazteko beharrezkoa da marketin plan on eta egoki bat zehaztea. Horretarako, sare sozialak erabiliko dira, gazteengan horien erabilera izugarria baita.

Banaketari dagokioenez, logistika osatzen duen arlo garrantzitsuena informatikoa da. Izan ere, ordenagailuen erabilera ezinbestekoa baita webgunea sortu eta hori moldatzeko. Hala ere, bertan idazten den informazioak eta idazten duten profesionalak ere osatzen dute.

Finantza-kudeaketan zentratuz, webguneko irabaziak modu egokian kudeatzeko jarraipena egitea ere ezinbestekoa den heinean, kontabilitatea ongi egitea ere baita.

Azkenik, **giza baliabideei** dagokionez, hitzaldiak ere eskainiko dira gaian adituak diren pertsonen eskutik; hau, enpresa honen parte garrantzitsuenetariko bat baita.






FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide hauek negozio-eredua aurrera eramateko beharrezkoak diren jardueren multzoa da. Ondorengo hauek dira “Bubble”-enak:

- Baliabide ekonomikoak: gobernuak eta Europar Batasunak diru laguntzak eskainiko ditu, gazte ekintzaile eta kultura sustatzen duten enpresa guztiei bezala.
- Baliabide fisikoak: Ordenagailuak eta Hardware-a funtsezkoak izango dira webgune bat eramateko orduan. Honez gain, hainbat material ere beharrezkoak izango dira bulego txiki bat sortu ahal izateko; esaterako, mahia, eserlekua...
- Baliabide ukiezinak: Webgune honen ekoizpenerako ezinbestekoak dira, interneta, wifi-a eta software-a.
- Baliabide pertsonalak: Gure kasuan, baliabide pertsonalak dira garrantzitsuenak, beraiek baitira webgunearen motorra. Baliabide pertsonalen multzoa, gaian adituak diren eta aholkularitza eskaintzen duten profesionalek, webgunean parte-hartzen duten gazteek, eta webgunea bisitatzen eta bertan zerbait idatzi edota bertatik informazio hartzen duten pertsona guztiek osatzen dute.





KOSTU EGITURA

Webgunearen garapena eta mantentzea:

- Webgunea eta aplikazioa garatzea → 1.500€ / behin behinekoa
- Ostatu-kostuak hodeian → 15€ / hilean
- Webgunearen mantentze-lanak eta eguneratzeak → 100€ / hilean

Edukia sortzea:

- Multimedia-materialen ekoizpenarekin lotutako kostuak (bideoak, irudiak, infografiak) → 150€
- Edukirako lizentziak eta egile-eskubideak → 400€ /

Giza baliabideak:

- Barneko langileentzako soldatak (editoreak, idazleak, diseinatzaileak) → 1.500€ / pertsonako
- Psikologoentzako edo hitzaldiak emateko subkontratutako beste profesional batzuentzako ordainsariak → 400€ / hitzaldiko

Teknologia eta softwarea:

- Datuen segurtasunerako eta babeserako softwarea → 20€ / hilean

Ofizina:

- Alokairua → 1200€ / hilean
- Argia → 400€ / hilean
- Ura → 30€ / hilean
- Wifi → 50€ / hilean
- Materiala (ordenagailuak, disko gogorra...) → 5.000€



FUNTSEZKO ALIANTZAK

Webgunearen kasuan, “Bubble”, 4 bazkidez osatutako SL bat da eta enpresa honen funtsezko aliantza bat **psikologoak** eta **sexologoak** izango litzateke, hauek ez baitira enpresaren parte. Subkontratatuak izaten dira hitzaldiak emateko edota sexu-osasuntsuari buruzko informazioa eskaintzeko.



Beste aliantza batzuk, sexuarekin edo sexualitatearekin zerikusia duten zerbitzuak dira; esaterako, **Durex**, **Evax** edo **Platanomelon**, hau da, gure gaiarekin antzekotasunak duten elkarteak. Beraiekin bat eginda onuragarria izango da enpresarentzat, indarrak eta baliabideak elkartuz, elkarren onurarako helburuak lortzeko.

Bestalde, gazte ekintzaile gisa, **gobernuak** nahiz **Europar Batasunak** diru laguntzak eskainiko dituzte “Bubble” aurrera eraman ahal izateko.



BEZEROAREKIKO HARREMANA

“Bubble” gazte eta nerabeei zuzendutako zerbitzu bat da. Kontuan izanik gure bezeroen kopuru handi batek **sare sozialetan** denbora asko igarotzen duela, publizitatearen zati garrantzitsu bat, Instagram, X eta Tik Token egongo da.

Bezeroarengana hurbiltzeko, gure publizitatea ez litzateke bideoen aurreko iragarpenetan soilik oinarrituko. “Bubble”-ek **podcast** eta **entretanimendu bideoak** finantzatuko luke, nerabeentzat ez izateko beste iragarki bat askoren artean, baizik eta hauei interesa sortarazteko.

